

VI

Osoko bilkura

Gasteizen, Goiuri jauregian

2024ko ekainaren 29an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua
Coyos, Jean-Baptiste, buruordea
Arejita, Adolfo, idazkaria
González de Viñaspre, Roberto, diruzaina
Urkia, Miriam, Iker sailburua
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua
Alberdi, Andres
Arkotxa, Aurelia
Azkarate, Miren
Borda, Itxaro
Iñigo, Andres
Kaltzakorta, Jabier
Kintana, Xabier
Lakarra, Joseba
Meabe, Miren Agur
Mujika, Alfontso
Oñederra, Miren Lourdes
Rekalde, Paskual
Sagarna, Andoni
Salaberri, Patxi
Suárez, Castillo
Uribarren, Patxi
Zabaleta, Patxi

Osa, Erramun, idazkariordea,
zegozkion gaitetan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Asun
Garikano eta Jose Irazu «B. Atxaga».

Ahalak: Asun Garikanok ahala Miriam
Urkiari eta Jose Irazu «B. Atxaga»k ahala
Andres Urrutiari.

*Batzarra Gasteizen egin da, Goiuri jauregian,
2024ko ekainaren 29an, larunbatean.*

*A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzainak
agurtu eta ahalak irakurri ditu. Quoruma
badela egiaztatu ondoren, 2024ko ekaineko
osoko bilkurari hasiera eman zaio.*

*E. Osa idazkariordeak eguneko xehetasunak
azaldu ditu.*

1. Osoko bilkuraren (2024-05-31) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

Ohar idatzirik ez da jaso. Ahoz iruzkinik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2024ko maiatzaren 31ko osoko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

A. Iñigok azpimarratu du ohorezkoen eta urgazleen biografien luzeran desorekak daudela. E. Osa idazkariordeak erantzun dio esanez arrazoia daukala baina halaxe etorri direla eta, izendatutako batzuek, halaxe agertzea eskatu zutela.

2. B. Oihartzabal euskaltzain emeritu izatearen domina-hutsartea: hautagaia bozkatzea

Maiatzaren 31ko osoko bilkuran, hautagai bakarra aurkeztu eta aldarrikatu zen, Jon Casenave euskaltzain urgazlea, hain zuzen. Hori horrela, bozketa egin da, Arautegiak zehazten duenaren arabera.

Bozketaren unean, zuzenean edo ordezkatuak dauden euskaltzainak, guztira, 24. Hautagaiak eskuratu beharreko aldeko gutxieneko boz-kopurua: 13.

Bozketaren emaitza: J. Casenave izendatzearen alde 18 boto eta 6 boto zuri. Ondorioz, Arautegiaren 35. artikulua dioena kontuan hartuz, J. Casenavek euskaltzain osoen bozen nagusitasuna erdietsi du eta, hortaz, euskaltzain oso aukeratu da. Euskaltzain oso izendatu berriari zorionak ematea erabaki da osoko bilkuran.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak.

Batzorde Ahaldunduaren oharrak (LIII). Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

Oharrak jorratzen hasi aurretik, hiztegiaren ekaineko eguneratzeari buruzko azalpenak eta datuak eman ditu M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak. Ondoren, maiatzeko bilkuran aurkeztutako zerrendari A. Alberdik, A. Garikanok eta P. Zabaletak egindako oharrak aurkeztu dira, bai eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak ere. EZKONTZA HAUTSI azpisarreraren definizioa osoko bilkuran erabakitzeko laga zuten egitasmoko kideek, 'Ezkontzako elkartzea hautsi' egoki ikusten bazuten ere. Hala onartu da. Beste oharrak ez da egin eta, beraz, zerrenda osoa onartuta geratu da.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak. Batzorde Ahaldunduenaren oharrak (LIV). Aurkeztu.

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak, A. Iñigok eta M. Azkaratek egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko epea zabaldu da, uztailaren 15a (astelehena) artekoa.

5. EBO: Letra larri eta xeheei buruzko 4.2. txostenari euskaltzain osoek egindako oharrak eta EBE Batzordearen erantzuna. Aztertu eta erabaki

EBE Batzordeko A. Mujikak adierazi duenez, letra larrien 4. txostenaren bigarren parteari hiru euskaltzain osok egin dizkiote oharrak: M.A. Meabe, M. Azkarate eta M.L. Oñederrak. EBE Batzordeak aztertu ditu, eta erantzuna prestatu du.

M.A. Meaberen oharra txosteneko idazte-akats bat zuzentzeko proposamena zen, eta zuzenean onartu da, eztabaidatu beharrik gabe. M. Azkarateren eta M.L. Oñederraren oharrak eta EBEren erantzunak aztertu ondoren, erabaki hauek hartu dira:

- Adibideetako izen-elkarteetan, marratxoa aukera denean, bi aukerak esplizitatuko dira, marratxoduna eta marratxorik gabea. Horretarako, marratxoa parentesi artean jarriko da (adibidez, *Kubako independentzia(-) gerra*), eta aurkibidean, berriz, bi aukerak idatziko dira, bilaketa errazteko (adibidez, *Kubako independentzia-gerra* eta *Kubako independentzia gerra*). Eta adibide guztietan aplikatuko da, ez bakarrik letra larrien 4. txostenaren bigarren partean.
- *Labana Luzeen Gaia* / *Aizto Luzeen Gaia* bikotearen ordeztu, aukera bakarra proposatuko da: *Labana Luzeen Gaia*.
- *Gerra iraultzaileak* adibidearen ordeztu, *iraultza gerrak* eta *iraultza-gerrak* jarriko da.
- 2.3.11 puntuan, iraultzei buruzko atala berrantolatuko da: kasuen arabera antolatu beharrean, letra larria behar duten kasuak alde batean elkartuko dira eta, ondoren, letra xehea behar dutenak beste alde batean.
- «2.3.13 Azokak, kongresuak, erakusketak, jaialdiak eta kideko jendaurreko ikuskizunak» atalean, azalpena xehe eta arrazoitua jarriko da, argi uztearren

noiz den bileraren izendapena izendapen osoaren parte eta noiz ez. Zehazki, honela:

- Bileraren izendapenak, batzuetan, berariazko izenburua du, eta izenburu horren ondoren jartzen da gero izen generikoa, aposizio-egitura bat osatuz. Kasu horietan, generiko hori ez da izendapenaren parte, eta letra xehez idazten da. Adibide hauetan, solasaldi, jaialdi eta kongresu hitzak letra xehez idaztekoak dira:
 - Hamaika Gara solasaldiak [*Hamaika Gara izeneko solasaldiak dira*]
 - Oilo Pop jaialdia gaur Bermeon [*Oilo Pop izeneko jaialdia da*]
 - Unibertsitateko Prestakuntza Duala Europako Unibertsitate Eremuan kongresua [*Unibertsitateko Prestakuntza Duala Europako Unibertsitate Eremuan izeneko kongresua da*]
- Kasu horietan, izen generikoa ez da izendapenaren parte, eta, horregatik, ez da nahitaez hari atxikia eta ondotik idatzi behar:
 - Hamaika Gara oso solasaldi arrakastatsuak izan dira aurtan.
 - Eskerrik asko Oilo Popen elkartu zineten lagun guztiei
 - Eta hau izango da datorren asteko kongresua: Unibertsitateko Prestakuntza Duala Europako Unibertsitate Eremuan.
 - Aldiz, Komunikazio Digitalaren eta Ziberkazetaritzaren Nazioarteko Kongresua, Nazioarteko Terminologia Biltzarra edo Makina-erremintaren Biurtekoa moduko izendapenetan, Kongresua, Biltzarra eta Biurtekoa hitzak izendapenaren parte nahitaezko dira, Komunikazio Digitalaren eta Ziberkazetaritzaren Nazioarteko edo Nazioarteko Terminologia edo Makina-erremintaren ezin baitira izendapen izan, ezin baitira generikorik gabe erabili.
- *Lege lehor* eta *lege saliko* adibideak erabiltzea onartu da.
- 2.3.18.4 puntuan, produktu-izen lexikalizatuen adibideetan, *kleenex* sartzeko proposamena egin dute M. Azkaratek eta M.L. Oñederrak, eta EBE Batzordeak adierazi du sartzeko eragozpenik ez dagoela, baina grafia erabaki behar litzatekeela (*kleenex*/*klinex*). Kontuan izanik Euskaltzaindiaren Hiztegiko Adierak eta Adibideak lantaldeak proposatu duela izen hori hiztegian ez jasotzea, erabaki da adibide hori ez ematea. Bestalde, *zelo* adibidea ematea onartu da, eta, Euskaltzaindiaren Hiztegiko Adierak eta

Adibideak lantaldeak horrekin batera *eskotx* sartzea onartu duenez, hori ere sartuko da adibideen zerrendan.

- 2.3.17 puntuan, «ahal delarik» erantsiko da. Honela: «Beste hizkuntza bateko izenburuak, ahal delarik, dagokion hizkuntzaren arau ortotipografikoei jarraituz idazten dira».

Aldaketa horiek eginda, onartu egin da txostena.

6. EBO: Ortografia-markak (I) txostena. Aurkeztu

EBOk ortografia-marken multzoko lehen txostena aurkeztu du EBE Batzordeko A. Mujikak. Ortografia-marken atala aski handia da, eta hiru partetan landu da. Lehen partean, sarrera orokor bat egin da euskara batuaren historian ortografia-markak lehen aldiz noiz landu ziren azaltzeko. Ondoren, puntuaziori buruzko sarrera orokor bat egin da, eta puntuazio-markak zein diren eta zer funtzio duten zehaztu da. Jarraian, puntuazio-marken atala dator berez, baina atal hori hurrengo txostenetan landuko da. Oraingo txostenaren parte nagusia marka lagungarrien atalari dagokio. Marka lagungarri bakoitzaren deskribapen tipografikoa egin da (marratxoa, beheko marra, marra etzana, barra etzan bikoitza, alderantzizko barra etzana, barra bertikala, barra bertikal bikoitza, izartxoa, apostrofoa, *et* edo anpersana, a bildua, euli-zangoa, gezia, giltza eta buleta) eta bakoitzaren funtzioak xeheki deskribatu. Atalik handiena marratxoarena da, funtzio asko dituelako.

Azken atala marka diakritikoena da. Osoko Bilkurak marka diakritikoei buruzko txostena onartu zuen 2023ko irailaren 29an, Iruñean. Orduan, EBO egitasmoaren barnean ortografia-markei buruzko atalaren barnean sartzea eta hala plazaratzea erabaki zen. Beraz, atal horretan ez da beharrezkoa oharrak egitea, jada onartuta baitago, non eta formari buruzko oharrak ez diren.

Aurkezpenaren ondoren, gaur aurkeztutako txostenari oharrak egiteko epea zabaldu da, irailaren 9 (astelehena) artekoa.

7. Esku artekoak

7.1 Erramun Baxok ohorezko euskaltzaina ekainaren 3an hil zen. Suhuskunen (Nafarroa Beherea) jaio zen E. Baxok, 1928ko abenduaren 26an. Filosofiako doktorea (Laval Unibertsitatea), Euskal Kultur Erakundearen buru izatetik erretiroa

hartuta zegoen. Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen 1996ko martxoaren 29an, eta ohorezko 2010eko urtarrilaren 29an. Euskaltzaindiaren batzorde hauetan egin zuen lan: Jagon Saila (1995-1999) eta Sustapena (1999-2021).

7.2 Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetza. Hitzarmena izenpetu zuten ekainaren 18an. Akordioaren zenbatekoa 200.000 eurokoa da. Zehazki, Nafarroako Gobernuak Euskarabidearen bidez finantzatuko ditu *Euskaltzaindia eta Nafarroa* liburuxka eta *Blas Fagoaga Ariztia irakaslea eta euskaltzaina* liburuaren edizioak; Onomastika Batzordean jasotako kontsulten txostenak eta izapideak egitea; musika-emanaldi bat (Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* obraren ganean Danserie taldeak prestatutakoa) eta hiru erakusketa ibiltari (*Euskara ibiltaria*, *Pirinioetako hizkuntzak* eta *Euskara Ezkabarten*); eta, era berean, oikonimiaren analisisa diruz lagunduko da, hau da, Ollarango etxeen izenak aztertzekeo egitasmoa.

7.3 Bilboko Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetza. Bi aldeek hitzarmena izenpetu zuten ekainaren 19an. Akordioaren zenbatekoa 35.000 eurokoa da. Bilboko Udalak eta Euskaltzaindiak urtero sinatzen dute hitzarmen hori, hizkuntzaren garapenarekin eta gizarteratzearekin duten konpromisoaren erakusgarri. Bi erakundeon arteko elkarlanaren kariaz, besteak beste, hizkuntza biziberritzeko eta euskal kultura zabaltzeko hizkuntza-aholkularitza eskaintzen dio Akademiak Udalari, eta kultura-jarduerak ere antolatzen dira, tartean, Lautan Hiru antzerki-jaialdia. Horrez gain, Euskaltzaindiak A. Arejitaren *Errefrau artean aztarrika* liburua argitaratuko du aurtan.

7.4 Hurrengo bilkurak. Hurrengo osoko bilkura Bilbon, uztailaren 19an, ostiralean, egingo da, egoitzan, 10:00etan.

8. Azken ordukoak

I. Borda euskaltzainak hitza hartu du eta iraileko azken asteburuan Itsasun egingo den *Irailekoak* egitasmoari buruzko argibideak eman ditu. Egitarau zehatza uztailaren 19an egingo den osoko bilkuran aurkeztuko da.

Eta bestelako aztergaiarik ez dela, osoko bilkura bukatutzat eman da, 11:30ean.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita
Idazkaria